

Urtarrilaren 1ean

JAINKOAREN AMA MARIA SANTUAREN FESTABURUA

Agurra

Errukiaren eta bakearen Jainkoa izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Jainkoaren Ama Maria Santuaren festaburua dugu gaur, Eguberri-zortzigarren honetan. "Jainkoaren Ama" aitortzen dugu Maria, berarengan gizon egin baitzen Jainkoaren Hitza.

Urteko lehen egun honetan Mariaren Seme Jesusi, Bakearen Erregeari, eska diezaiogun iritsi dadila lurreko bazter guztietara bere jaiotzaz munduari ekarri dion egiazko bakea.

Damu-otoitza

Urte berri egunez iturrira joan eta ur berria hartzea ohitura zaharra zen gure herrietan. Has daiteke gaurko meza (damu-otoitza utzita) ura bedeinkatuz eta herria urez zirtatuz. (Ikus bedeinkapen otoitza liburuxka honetan 52. orrialdean).

Ospakizunaren hasieran eska dezagun bekatuen barkamena, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

V/. Erruki, Jauna. **R/.** Bekatu egin dugu-ta.

V/. Agertu guri, Jauna, zeure bihotz ona. **R/.** Eta salba gaitzazu.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

V/. Erruki, Jauna. **R/.** Erruki, Jauna.

V/. Kristo, erruki. **R/.** Kristo, erruki.

V/. Erruki, Jauna. **R/.** Erruki, Jauna.

Aintza

Bat egin dezagun zeruko nahiz lurreko senide guztiekin, Jainkoa bihotz-bihotzez goratzeko.

Otoitza

**Maria dohatsua birjina izanik ama eginez,
gizadiari salbamina eman diozun Jainkoa,
egizu, laguntzaile ere izan dezagula zure aurrean
beraren bidez lortu baikenuen biziaren sortzailea,
zure Seme Jesu Kristo gure Jauna.
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Biblia, bere osotasunean harturik, Jainkoak bere herriarekin izan duen historia da: maitasun historia, bedeinkapen eta salbamen historia. Horixe entzungo dugu gaur ere: Jaunak gure alde ari da, Jauna gurekin da beti gu salbatzen eta gu bedeinkatzen.

Lehenengo irakurgaia (Zen 6, 22-27)

Zenbakien liburutik

Jauna honela mintzatu zitzaion Moisesi: «Hitz egiozu Aaroni eta haren seme-alabei, eta esan: Honela bedeinkatuko dituzue israeldarrak: "Bedeinka zaitzala Jaunak, eta zaindu. Ager diezazula Jaunak bere aurpegi argia, eta erruki dadila zutaz. Ager diezazula Jaunak bere aurpegia, eta eman bere bakea". Honela aipatuko dute nire izena israeldarren gainean, eta Nik bedeinkatuko ditut».

Erantzun-salmoa (*Sal* 66. 2-3. 5. 6 eta 8)

A-ger - tu zu - re bi- hotz o - na. E-man, Zuk, Jau -
na, o - sa - su - na.

Erruki bekigu Jainkoa, bedeinka **gaitzala**,
ager diezagula aurpegi alai;
ezagutu dezaten lurrean zure **bidea**,
herri guztietan Zugandiko sal**ba**mena. R/.

Poztu bitez kantari **atzerriak**,
zuzenbidez baitaramazu **izadia**;
zintzo baitituzu gidatzen **herriak**,
eta zaintzen lurrean **atzerriak**. R/.

Ene Jainko, ospa zaitzate **herriek**,
ospa zaitzate **herri** guztiek.
Jainkoak bedeinka **gaitzala**,
lur bazter guztiek beldur **diotela**. R/.

Bigarren irakurgaia (*Ga* 4, 4-7)

San Paulo Apostoluak Galaziarrei

Senideok: Garaia bete zenean, bere Semea bidali zuen Jaungoikoak, emakumeagandik jaioa, Legepeko egina, Legepean zeudenak eroatera, guk seme-ordetza har genezan. Eta seme-alaba zaretelako, bere Semearen Espiritua bidali du Jaungoikoak zuen bihotzetara, «Abba! Aita!» deika ari dena. Beraz, gehiago ez zara morroi, seme baizik; eta seme bazara, baita oinordeko ere, Jainkoari esker.

Aleluia (*Hb 1, 1-2*)

A - le-lu - ia, a - le-lu - ia, a - le-lu - ia, a - le-lu - ia.

Askotan eta era askotara

hitz egin zien Jaungoikoak Profeten bidez ‘aspalditik gure **arbaso**ei;
eta azkenak diren egun **hauetan**,
Semearen bidez hitz **egin** digu. R/.

Ebanjelioa (*Lk 2, 16-21*)**Homiliarako argibideak**

Gaurko ospakizunari “berri ona” dario alde guztietatik: Eguberri zortzigarrena dugu gaur, oraindik Jesusen Jaiotza bizi-bizi ospatzen ari garelarik. Zailtasunak ugari dituen gure munduaren erdian beharrezkoa zaigu “Jainkoa-gurekin” dela aitortuz eta gure bizitzarako bere bedeinkapena eskatuz urte hastea.

Itun Zaharreko apaizek (lehen irakurgaian ikusi dugu) herria bedeinkatzen zuten Jainkoaren izenean «ager diezazula aurpegi argia... eman diezazula bere bakea» esanez; bedeinkatuagoak gara gu, Semea bete betean eman baitigu Jainkoak. Halaxe iragarri zuten aingeruek: «aintza zeruetan Jainkoari eta bakea lurrean haren gogoko gizakiei».

Merezi du ospakizunaren bukaeran hartuko dugun bedeinkapen berezia gogoan izatea: «Bedeinkapen guztien iturri den Jainkoak eman diezazuela bere grazia... eta urte guztian bizirik eta osasunez gorde zaitzatela... Berak egin zaitzatela sinesmenean sendo,

itxaropenean zintzo, eta bizitzako gorabeheretan maitasunean iraunkor azkeneraino... urte berri honetan zuen egunak eta lanak bere bakean era ditzala, zuen eskariak nonahi eta beti entzun eta eraman zaitzatela betiko bizira».

Zer hoberik opa diezaiokegu elkar? Dena beharko dugu datozen hamabi hilabeteetan.

Oraindik Eguberri da. Jainkoa gugana gerturatu da gure historian haragi hartzean.

Jarri zioten izena Jesus izan zen. Horrek «Jainkoak salbatu egiten du» esan nahi du hebraeraz: horixe da Mesiasi jarri ziezaioketen izen esanguratsuena, Jainkoa-gurekin dela esatearen antzekoa.

Jainkoa gure historian barneratu da, era betean eta betiko. Horixe da Eguberriaren misterio oinarrizkoa. Jainkoak historian parte hartuz salbatzen gaitu bere Semearen bidez. Salbamen hori hasi da dagoeneko eta bere betera iritsiko da: «salbamenaren hasiera pozik ospatzen dugunok irits dezagula egun batean salbamen horren betea» (*oparien gaineko otoitza*).

Halaxe esan digu Paulok: «Semea bidali zuen Jaungoikoak, guk seme-ordetza har genezan».

Ez gara izaki hutsak, are gutxiago esklabuak. Jainkoaren Semea gure senide egin da, gu Jainkoaren familiako izan gaitezen, «beraz gehiago ez zara morroi, seme baizik» Kristorekin batera. Eta horregatik, Jesus bera eragiten zuen Espirituak eraginik, guk ere esan dezakegu egiaz "Abba, Aita".

Jainkoaren seme-alaba izateak itxaropenez bizitzea dakar. Aurtengo bakearen egunak ere itxaropena aldarrikatzen du: «**Itxaropena, bakerako bide: elkarrizketa, baketzea eta bihotz-berritze ekologikoa**». Zailtasunak gaingaitzen saiatuz, elkarri bidean

lagunduz. Gizon egin zen Jainkoaren misterioa elkarri eskura jarritz. Jainkoa gurekin den bezala gu elkarrekin izanez. Elkarren axola gehiagorekin bizitzeak bake-bidean jar gaitzake. Horixe eskatuko diogu Maria birjinari, itxaropen osoz egun honetan.

Abendualdia eta Eguberrialdia Andre Maria presente edukitzeko garaia dira, Jesusen gizon egitean, jaiotzan eta agerkundean toki berezia baitu berak. Ez guk hala nahi dugulako, Jainkoak berak bizitzaren hasieratik gurutze ondora eta Pazkotik Espirituaren etorrerara Maria Jesusen ondoan jarri zuelako baizik.

Baina gaur era berezian gogoratzen dugu Maria: «berak salbamen misterioan izan zuen partehartzea ospatzen dugu eta berak duen garrantzia berezia azpimarratzen dugu, beraren bidez jaso baikenuen biziaren Iturria» (Paulo VI, *Marialis Cultus*).


Pozik aitortzen dugu «Maria ama eginez, betiko salbamena eman diola Jainkoak gizadiari» eta beraren bidez hartu dugula «biziaren sortzailea» (*ik. kolekta otoitza*). Jaunartze ondorengo otoitzean azaltzen da Paulo VI.ak Mariari jarritako izen berria: «Elizan Ama», gaur pozkarioz aitortzen duguna.

Maria da itxaropenaren erdua, harrera onaren eta Mesias mundura etortzearen laguntzailea. Berak inork ez bezala bizi zituen Abendualdia, Eguberria eta Jaunaren Agerkundera. Horregatik, Jesusekin batera bera oroitzeak lagundu egiten digu aldi hau egoki bizi eta urtea ondo hasten.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: zuzen diezaiogun gure otoitza Jaunari, eta Bere Semearen Ama bitarteko dugula eska dezagun bere errukia gizaki guztientzat:

Erantzuna: **Erakuts guri, Jauna, zure bihotza ona.**



- Fededun guztiek, Mariaren antzera bihotzean gorde eta hausnar dezaten Jainkoaren Semeaz entzuna, gero gartsu hots egiteko.
- Herrialde eta arraza guztietako gizon eta emakumeak, guztion Aita den Jainko bakarra aitortuz elkarren senide bezala bizi daitezten.
- Gerra eta injustizia, zapalketa eta gosea nozitzen duten herrian deia Jaunarengana iritsirik ahal bezain laster egiazko bakera eta elkarbizitzara iritsi daitezten.
- Urte berriaren hasiera Jainkoari eskaintzera hemen bildu garenok, bizi ditzagula bakez urte honen egun guztiak eta osasun eta alaitasunez bukaerara hel gaitezen.

Betiereko Jainko Jauna entzun gure otoitzak eta bedeinka ezazu hastera goazen urte berri hau: gure eguneroko lanak eman diezagula eguneroko ogia eta gure bihotzek aurki dezatela zure Hitzarengan asebeteko dituen eta ongiaren bidetik eramango dituen egiazko janaria. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Maria Birjinaren errai errukitsuek eraman zuten eta mundura ekarri Salbatzailea, Mesias Jauna, Espirituaren indarra bitarteko. Errukiaren Espiritu bera eskatuko dugu orain, elkarrekin otoitz eginez.

Prefazioa: Mariaren Birjinaren I. Prefazioa. (Meza-liburua: 520. or.)

«Eta Zu bedeinkatzea eta gorestea, Maria beti Birjina dohatsuaren amatasuna ospatzen dugun egun honetan».

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jauna, pozik hartu ditugu sakramentu zerutarrak;
egizu, Maria beti Birjina dohatsua
zure Semearen sortzaile eta Elizaren amatzat
aitortzen eta goosten dugunok
laguntza izan ditzagula betiko bizia lortzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makurtu burua Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Bedeinkapen guztien iturri den Jainkoak
eman diezazuela bere grazia,
isur dezala zuen gainera bere bedeinkapen ugaria
eta gorde zaitzatela urte guztian bizirik osasuntsu.** R/. Amen.

**Egin zaitzatela berak egin zaitzatela sinesmenean sendo,
itxaropenean zintzo
eta bizitzako gorabeheretan
maitasunean iraunkor azkeneraino.** R/. Amen.

**Urte berri honetan
era ditzala zuen egunak eta lanak bere bakean,
entzun ditzala zuen eskariak nonahi eta beti
eta eraman zaitzatela betiko bizira.** R/. Amen.

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak.** R/. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. R/. Eskerrak Jainkoari.